



# L A B U R P E N A

Euskal Autonomia Erkidegoko  
**Hondakin Ez Arriskutsuen**  
inbentarioa

**2 0 0 6**



Herri-baltzua  
Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

Euskal Autonomia Erkidegoko

# Hondakin Ez Arriskutsuen

inbentarioa

---

# l a b u r p e n a

## **HASIERAKO OHARRA**

***Inbentario honetako tauletako eragiketetan (baturak eta ehunekoak) egon litezkeen akats aritmetikoak erabaki baten ondorio dira; izan ere, batugaietako hamartar guztiak batu baititugu, batzuetan hamartar guztiak ikusi ez arren.***

***Horrela, eragiketaren emaitza, biribildu arren, ez da murriztuko.***

## **1. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN SORKUNTZA**

2006an, hondakin ez-arriskutsuen 3.355.596 tona sortu ziren, 2004an eta 2005ean baino gutxiago beraz, urte horietan 3.642.916 tona eta 3.400.711 tona sortu baitziren, hurrenez hurren. Hondakin gehien sortu zituzten jarduerak honako hauek dira: burdinaren eta altzairuaren sektoreak, metalezko produktuen fabrikatzaileak –gaika biltzen diren zatikiak; txatarra, batik bat– eta zura zerratzten, marruskatzen eta industrialki prestatzen dutenak.

**1. taula. 2006an sortutako hondakin ez-arriskutsuen korrante nagusien taula, EHZren lau digituko sailkapenaren arabera. Datuak: t/urte**

<b>EHZ</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Kopurua</b>
1002	Burdinaren eta altzairuaren industriako hondakinak	1.077.921
0301	Egurra eraldatzen eta taulak zein altzariak ekoiztean sortutako hondakinak	617.415
2001	Gaika jasotako frakzioak (15 01 azpikapituluan zehaztutakoak salbu)	364.025
0303	Paper-orea, papera eta kartoia ekoiztean zein eraldatzean sortutako hondakinak	360.739
1009	Burdinazko piezak galdatzean sortutako hondakinak	208.725
1908	Hondakin-urak tratatzeko instalazioetako hondakinak	137.369
2003	Udalerrietako beste hondakin batzuk	115.518
1910	Metalak dituzten hondakinak zatitzean sortutako hondakinak	110.709
1501	Ontziak (udalerrietako gaikako bilketetako ontzien hondakinak barne)	109.189
1611	Labeen estalduren eta erregogorren hondakinak	59.487
<b>GUZTIRA</b>		<b>3.161.097</b>

## **2. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN KUDEAKETA**

2006an, 2.248.725 tona hondakin ez-arriskutsu birziklatu ziren EAEn; hots, sortutako hondakin ez-arriskutsu guztien % 67,01. Zabortegietan deuseztatutako kantitatea 1.013.148 tonara murriztu zen (hots, % 30,19). Gainera, 93.723 tona hondakin energetikoki balorizatu ziren (gutzizkoaren % 2,79).


6. taulan ikus daitekeenez, deuseztatu beharreko hondakinen proportzioa gutxitu egin da 2004-2006 aldian, baina birziklatzera eta energetikoki balioztatzerara bidalitako kopurua igo. Aipagarria da 2006an izandako hobekuntza bikaina, 2004ko eta batez ere 2005eko balioekin konparatuz gero. Halaber, sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua jaisten ari da. Horrek guztiak erakusten du EAEn enpresek gero eta hobeto kudeatzen dituztela euren hondakinak.

**2. taula. EAEn 2004-2006an sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta kudeaketa motaren arabera. Datuak: t/urte**

EHZ (bi digitu)	Deuseztatuta			Birziklatuta			Energetikoki balioztatuta			GUZTIRA		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
03: Zurgintza eta papergintza	98.587	109.606	140.894	851.944	832.082	837.260				950.531	941.688	978.153
04: Larrugintza eta ehungintza	3.073	1.320	1.533	2.583	1.043	919	2			5.657	2.363	2.452
05: Petrolio fintzea		3	9								3	9
06: Kimika inorganikoaren industria	1.282	1.006	1.697							1.282	1.006	1.697
07: Kimika organikoaren industria	3.621	7.679	14.125	6	3.098	2.514				3.627	10.777	16.640
08: Pinturak, bernizak eta tintak	55	88	51	23	524	229				78	612	280
09: Argazkigintza industriako hondakinak	333	14	6		1	1				333	15	6
10: Prozesu termikoen industria	720.157	736.098	436.527	860.567	698.248	885.504				1.580.723	1.434.345	1.322.031
11: Metalen tratamendua eta estaldura	156	8.969	10.264	4.798	4.268	6.617				4.954	13.238	16.882
12: Metalak mekanizatzeko industria	41.810	30.391	30.583	50.195	13.898	12.869				92.005	44.289	43.451
15: Ontziak eta trapuak	36.765	4.634	4.253	58.966	33.736	104.948				95.755	38.371	109.202
16: Beste hondakin batzuk	64.160	82.464	69.216	83.185	57.404	31.998	8.499	12.808	12.808	155.844	152.676	114.022
19: Hondakinen tratamenduaren ind.	204.875	178.888	175.658	10.099	12.861	14.655	73.728	64.907	80.915	288.701	256.656	271.229
20: Hiri hondakinak eta asimilagarriak	115.863	139.307	128.332	347.562	365.366	351.210				463.425	504.673	479.542
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.290.736</b>	<b>1.300.468</b>	<b>1.013.148</b>	<b>2.269.926</b>	<b>2.022.529</b>	<b>2.248.725</b>	<b>82.229</b>	<b>77.715</b>	<b>93.723</b>	<b>3.642.916</b>	<b>3.400.711</b>	<b>3.355.596</b>
<b>KUDEATUTAKO %</b>	<b>% 35,43</b>	<b>% 38,24</b>	<b>% 30,19</b>	<b>% 62,31</b>	<b>% 59,47</b>	<b>% 67,01</b>	<b>% 2,26</b>	<b>% 2,29</b>	<b>% 2,79</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>	<b>% 100</b>

Aipatzekoa da prozesu termikoen industriaren portaera. Batetik, sorrera gutxituz joan da etengabe eta, bestetik, birziklapenak hobekuntza handia izan du 2006an, 2005ean jaitsiera izan ondoren. Horren arrazoa Gipuzkoako zenbait enpresak 2005ean eta 2006an 2004an baino altzairu zepa gutxiago deklaratu izana da. Bizkaian, aldiz, sortutako zepa kopuru osoa ez da 2004-2006 aldian gehiegi aldatu. Probintzia horretako enpresen jarrerari dagokionez, baina, bai izan dela aldaketarik; izan ere, 2004an datuak ematen zituztenek utzi egin baitiote 2005ean eta 2006an datuak emateari, eta alderantziz.

**1. irudia. EAEn 2006an sortutako hondakin ez-arriskutsuak, kudeaketa motaren arabera. Datuak: t/urte**



Inbentariatutako hondakin korrante batzuek tratamendu mota jakin bat izaten dute gehienetan. Esate baterako:

- Zura eraldatzen eta taulak zein altzariak ekoizten sortzen diren hondakinak (EHZ 03 01) eta, are zehazkiago, zerrautsaren, txirbilaren, ebakiduren, zuraren, partikulen taulen eta egurrezko txapen hondakinak (EHZ 03 01 05), eta azalaren zein kortxoaren hondakinak (EHZ 03 01 01) % 100 birziklatzen dira. Era berean, burdina duten metalen hautsak eta partikulak ere birziklatu egiten dira gehienetan (EHZ 12 01 02).
- Nahasketa industrial gehienak zabortegetan deuseztatzen dituzte (EHZ 20 03 01); izan ere, gehienei (% 99,59) tratamendu hori aplikatzen baitzaie. Era berean, galdaldiko ardatzen eta moldeen hondakinak (10 09 08) % 62,35 deuseztatzen dira, eta fragmentazio zati arinak, berriz, (fluff-light, EHZ 191004) % 100.
- Balioztapen energetikoa, berriz, kasuotan aplikatzen da batez ere: erabiltzen ez diren pneumatikoetan (EHZ 16 01 03) (% 65,70), araztegetako lohietan (EHZ 19 08 05) (% 52,75), eta plastiko eta kautxuan (EHZ 19 12 04) (% 99,77).


### **3. JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN NAZIONALAREN** **(JESN) ARABERAKO AZTERKETA**

Urtean hondakin ez-arriskutsu gehien sortzen dituzten sektore industrialak 7. taulan ageri direnak dira, guztiek batera EAEko industriak sorturiko hondakin ez-arriskutsuen guztizkoaren % 84,95 osatzen baitute.

**3. taula. Hondakin ez-arriskutsu gehien sortzen duten sektoreak 2006an. Datuak: t/urte**

JESN	Jardueraren sektorea	Sorturiko kantitatea	EAEko guztizkoaren gaineko ehunekoa	Metatutako ehunekoa
271	Burdinazko, altzairuzko eta burdin aleazioko oinarritzko produktuak fabrikatzea (CECA)	1.030.296	% 30,70	% 30,70
201	Zura zerratzea eta arrabotatzea; egurraren prestaketa industrial	611.877	% 18,23	% 48,94
275	Metalak galdatzea	289.198	% 8,62	% 57,56
212	Paperezko eta kartoizko artikulua fabrikatzea	199.242	% 5,94	% 63,49
211	Papera egiteko pasta, papera eta kartoia fabrikatzea	180.428	% 5,38	% 68,87
410	Ura kaptatzea, araztea eta banatzea	129.184	% 3,85	% 72,72
371	Txatarra eta metalezko hondakinak birziklatzea	124.729	% 3,72	% 76,44
272	Tutuak fabrikatzea	116.527	% 3,47	% 79,91
284	Metalen forja, estanzazioa eta enbutizioa; hautsen metalurgia	84.826	% 2,53	% 82,44
266	Hormigoi, igeltsu eta zementuzko elementuak egitea	84.132	% 2,51	% 84,95

**2. irudia. Hondakin ez-arriskutsuen sorkuntza sektore nagusietan 2006an. Datuak: t/urte**



## **4. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA**

Lurraldez lurralde, Bizkaiak sortu ditu hondakin ez-arriskutsu gehien (1.675.023 tona; hots, guztizkoaren % 49,92) eta ondoren Gipuzkoak (974.619 tona; hots, guztizkoaren % 29,04). Arabak, berriz, 705.954 tona sortu ditu (guztizkoaren % 21,04). Kantitate hori, EAerekin alderatuta duen biztanleria banaketa kontuan hartuta, legokiokeena baino handiagoa da. Horren arrazoia da egurra eraldatzeko jarduerak garrantzi handia duela Araban.

8. taulan ikus daitekeenez, banaketa hori asko aldatu da 2004-2006 aldian, batez ere Bizkaiari eta Gipuzkoari dagokienez. Hori, kopuru handiena sortzen duten hondakin multzoetan lurralde banaketari dagokionez izan den aldaketagatik gertatu da: burdinaren eta altzairuaren industriako zepetan, hain zuzen. Aldaketa hori ez da gertatu inolako enpresa itxi izanagatik, baizik eta enpresek urtez urte emandako datuetan izaniko gorabeherengatik, lehen xehetasunez aipatutako moduan.


Kasu orotan, nabarmentzekoak dira hondakin siderometalurgikoak (EHZ 10), batez ere Gipuzkoan eta Bizkaiari. Araban, aipagarria da egurra eraldatzeko industria ere, 8. taulan, 7. irudian eta 8. irudian ageri denez.

**4. taula. EAEn 2004-2006 aldian sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta jatorrizko Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte**


EHZ (bi digitu)	ARABA			BIZKAIIA			GIPUZKOA			GUZTIRA		
	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006	2004	2005	2006
03	306.898	304.331	307.505	361.723	489.054	494.967	281.910	148.303	175.681	950.531	941.688	978.153
04	1.242			741	749	697	3.675	1.613	1.756	5.657	2.363	2.452
05					3	9					3	9
06	1.052	849	1.238	22	5	21	208	153	438	1.282	1.006	1.697
07	389	348	331	1.489	8.962	8.922	1.748	1.466	7.387	3.627	10.777	16.640
08	15	207	130	12	283	3	52	122	147	78	612	280
09		1	1	333	14	6				333	15	6
10	135.760	147.672	147.020	655.393	519.055	608.868	789.571	767.090	566.143	1.580.723	1.434.345	1.322.031
11	4.312	1.634	1.772	296	11.334	14.841	346	270	268	4.954	13.238	16.881
12	22.043	5.270	6.051	32.067	16.968	15.568	37.895	22.051	21.832	92.005	44.289	43.451
15	8.108	7.747	57.789	25.884	19.183	35.294	61.763	11.441	16.119	95.755	38.371	109.202
16	49.654	10.362	10.767	80.159	85.395	77.422	26.030	56.920	25.833	155.844	152.676	114.022
19	126.831	113.860	112.301	127.178	126.260	140.324	34.692	16.536	18.603	288.701	256.656	271.229
20	87.513	41.070	61.050	128.990	258.788	278.081	246.922	204.815	140.411	463.425	504.673	479.542
GUZTIRA	743.816	633.351	705.954	1.414.287	1.536.051	1.675.023	1.484.813	1.230.781	974.619	3.642.916	3.400.711	3.355.596
EAEko kopuru osoarekiko %	% 20,42	% 18,64	% 21,09	% 38,83	% 45,17	% 49,92	% 40,76	% 36,19	% 29,04	% 100	% 100	% 100



3. irudia. 2006an sortutako hondakin ez-arriskutsuak, EHZren eta jatorrizko Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte



4. irudia. Hondakin ez-arriskutsuen kudeaketa 2006an, Lurralde Historikoaren arabera. Datuak: t/urte



Bizkaian eta Araban birziklatzeko ohitura handia dute: 1.197.977 eta 540.086 tona, hurrenez hurren (% 71,52 eta % 76,50). Horren arrazoia zuraren sektoreko hondakin ugari egotea da, sektore horretan hondakinen % 90 baino gehiago birziklatzen baita. Era berean, altzairuaren sektoreko hondakin asko eta asko ere birziklatu egiten dira. Gipuzkoan, aldiz, txikiagoa da egurraren industriaren garrantzia; birziklatutako hondakinen proportzio orokorra % 52,40koa da.